Zuekin harremanetan jartzen gara **2022ko** martxoaren 30etik hona egin denaren berri emateko:

**Martxoaren 30ean** itxi zen Andragora Tolosaldeko Emakumeen Etxearen bigarren parte-hartze prozesua. Bilera horretan jakinarazi zen 4 lantalde sortuko zirela:

- Altzariak eta obren jarraipena.
- Elkartea sortzea eta kudeatzea.
- Etxearen programazioa eta inaugurazioa
- Komunikazioa.

**Apirilaren 7an,** Lantalde Politiko-teknikoaren bilera: Gune Zabalak martxoaren 30ean egindako bileraren balorazioa egin zen.

**Apirilaren 29an,** Prentsaurrekoa Emakumeen Etxean bertan, partaidetza-prozesuetan aztertutako eta adostutako gaien berri emateko (printzipioak, funtzionamendua, finantzaketa partekatua, kudeaketa, etab.).

**Maiatzaren 3an,** bilera Elkartea sortzeko eta kudeatzeko lantaldearekin. Lehenengo bilera horretan erabaki zen talde honetan egin beharreko lehen lana emakume bat diruzain izendatzea izatea, lehendakari eta idazkari karguak izendatuta baitzeuden. Behin hori eginda, estatutuen idazketa amaitzea eta elkartea legeztatzeko beharrezko izapideak egitea.

Era berean, bilera horretan adierazi zen ez zela oso argi ikusten 24 udalek elkarteari etxeko jarduerak egiteko dirulaguntza ematea. Gogoratu zen Talde Eragilearen azken bileran ez zela horri buruzko erabakirik hartu.

Azkenik, Talde Eragileko partaideei mezu bat bidaltzea erabaki zen, horietakoren bat diruzain izatera anima zedin.

**Maiatzaren 5ean,** Altzariak eta obren jarraipenaren Lantaldeak Errenteriako Emakumeen Etxera jo zuen ekipamendu horren altzariak aztertzeko. Altzari horiek egokiak, erosoak eta atseginak zirela uste zuten, eta, gainera, erabilgarria izan zitekeela eredutzat hartu eta altzariak kontratatzeko lizitazio-plegu teknikoetan sartu ahal izateko.

Nos ponemos en contacto con vosotras para informaros de lo que se ha hecho desde el 30 de marzo del **2022** hasta la fecha:

**El 30 de marzo** se cerró el segundo proceso participativo de la Casa de las Mujeres de Tolosaldea Andragora. En dicha reunión se informó de la creación de 4 grupos de trabajo:

- Mobiliario y seguimiento de obras.
- Creación y gestión de la Asociación.
- Programación e inauguración de la Casa.
- Comunicación.

**El 7 de abril,** reunión del Grupo de trabajo Político-técnico: valoración de la reunión de Gune Zabala del 30 de marzo.

**El 29 de abril** en la rueda de prensa de la Casa de las Mujeres, con el objetivo de informar sobre los temas tratados y consensuados, recogidos en los procesos de participación (principios, funcionamiento, financiación compartida, gestión, etc).

**El 3 de mayo,** reunión con el Grupo de trabajo Creación y gestión de la Asociación. En esta primera reunión, se acordó que el primer trabajo a realizar en este grupo fuera el nombramiento de una mujer como tesorera, ya que están nombrados los cargos de presidenta y secretaria. Tras ello, finalizar la redacción de los estatutos y realizar los trámites necesarios para la legalización de la asociación.

Asimismo, en dicha reunión, se manifestó que no se veía muy claro el que 24 ayuntamientos subvencionasen a la Asociación para la realización de actividades en la casa. Se recordó que en la última reunión del Grupo Motor no se tomó ninguna decisión al respecto.

Finalmente, se decidió enviar un mensaje a las participantes del Grupo Operativo para que alguna de ellas se animara a ejercer el cargo de tesorera.

**El 5 de mayo,** con el Grupo de trabajo Mobiliario y seguimiento de obras se acudió a la Casa de las Mujeres de Errenteria para analizar el mobiliario de este equipamiento, que consideraban adecuado, cómodo y agradable, y que, además, pudiera ser útil para tomarlo como modelo y poder incluirlo en los pliegos técnicos de licitación de la

Errenteriako Etxeko teknikariek gomendio oso egokiak eman zizkiguten, kontuan hartzeko. Bilera horretan Rehard-eko bi emakumek eta udal arkitektoak ere parte hartu zuten.

contratación de mobiliario. Las técnicas de la Casa de Errenteria nos dieron una serie de recomendaciones muy adecuadas para tener en cuenta. En esta reunión también participaron dos mujeres de Rehard y la arquitecta municipal.

**Maiatzaren 11n,** bilera Komunikazio taldearekin. Udaleko Komunikazio arduradunarekin eta ADAKIrekin (Udalak kontratatutako komunikazio enpresa) bildu ginen. Hainbat gai jorratu ziren: Etxearen logotipoa: lehiaketaren oinarriak sortzea eta ekainean argitaratzea. Lanak aurkezteko epea irailaren 30ean amaitu zen. Etxeko komunikazio-elementuen proposamena (informazio-bideoak, esku-orriak, eta abar).

**El 11 de mayo,** reunión con el Grupo de Comunicación. Nos reunimos con la responsable de Comunicación del Ayuntamiento y con ADAKI (empresa de comunicación contratada por el Ayuntamiento). Se trataron varios temas: Logotipo de la Casa: crear las bases del concurso y publicarlas en junio. El plazo de presentación de los trabajos terminó el 30 de septiembre. Propuesta de los elementos de comunicación de la Casa (vídeos informativos, hojas de información, etc).

**Maiatzaren 16an,** bilera Lantalde Politiko-teknikoarekin. Tratatutako gaiak: Finantzaketa partekatuaren kontrola, eta udal bakoitzak Etxeari egiten dion ekarpen ekonomikoa aztertzeko gaia jorratu zen eta Kontuhartzailetzarekin gaia komentatzea erabaki, modu errazean nola egin proposa ziezaguten.

**El 16 de mayo,** reunión con el Grupo de trabajo Político-técnico. Temas tratados: Se trató el tema de analizar el control de la financiación compartida y la aportación económica de cada ayuntamiento a la Casa, y comentar el tema con Intervención, para que nos propusiera la forma más sencilla de hacerlo.

Etxeko dinamizatzailearen kontratazioari zegokionez, Tolosaldeko ordezkari politikoek esan zuten Tolosaldea Garatzen arduratuko zela dinamizatzailea kontratatzeaz.

En cuanto a la contratación de la dinamizadora de la Casa, las representantes políticas de Tolosaldea dijeron que Tolosaldea Garatzen se encargaría de contratarla.

Azkenik, Tolosaldeko 23 udalei mezu bat bidaltzea erabaki zen, proiektuaren egungo egoeraren berri emateko, eta iraileko lehen hamabostaldian bilera batera deituko zitzaiela jakinarazteko.

Finalmente, se decidió enviar un mensaje a 23 ayuntamientos de Tolosaldea para informarles de la situación actual del proyecto y que se les convocaría a una reunión en la primera quincena de septiembre.

**Maiatzaren 18an,** bilera Elkartea sortzeko eta kudeatzeko lantaldearekin. Bigarren bileran, emakume bat aurkeztu zen diruzain kargua betetzeko, eta berak azaldu zuen zer abantaila eta eragozpen zituen lan hori egiteko.

**18 de mayo,** reunión con el Grupo de trabajo de Creación y gestión de la Asociación. En la segunda reunión, una mujer se presentó para ocupar el cargo de tesorera y ella misma explicó las ventajas e inconvenientes que tenía para realizar esta labor.

Gainera, bilera horretan adostu zen etorkizunari begira zer urrats emango ziren: Tolosako Udalaren eta Elkartearen arteko lankidetza-hitzarmena idaztea proposatu zen. Bilera horretan erabaki zen, era berean, berdintasun-teknikariak beste udal batzuek etxeetako elkarteekin adostutako hitzarmenen bilduma egitea eta taldeari bidaltzea, azter ditzan.

Además, en esta reunión, se acordó qué pasos se darían de cara al futuro: se propuso la redacción de un convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Tolosa y la Asociación. También se acordó que la técnica de Igualdad elabore y remita al grupo la recopilación de los convenios acordados por otros ayuntamientos con las asociaciones de casas de este tipo, para su estudio.

Era berean, Tolosako Udaleko Kontuhartzailetzari prestakuntza txiki bat eskatzeko aukera aipatu zen, Elkarteari ematen zaion dirulaguntza nominalaren gastuak modu egokian justifikatzeko helburuarekin.

**Uztailaren 4an,** Lantalde Politiko-teknikoarekin bilera. Tratatu ziren gaiak:

Finantzaketa partekatua. Bilera horretan, Kontuhartzailetzako teknikariarekin eta Ogasuneko zinegotziarekin ekainean izandako bileraren berri eman zen eta finantzaketa partekatuari buruz egindako proposamenak aurkeztu ziren: ez zen arazorik ikusten Emakumeen Etxearen Elkarteari dirulaguntza izenduna emateko, etxean jarduerak garatu ahal izateko (udal bakoitzak bere zatia). Garrantzitsutzat jo zen hasiera-hasieratik prozesua ondo kudeatzea. Hau da, fakturak eskatzea, egiaztatzea eta kudeatzea eta excel baten bidez erregistratzea.

Gainera, Kontuhartzailetza prest agertu zen tailer bat antolatzeko, Elkarteari excelaren bidez gastuen kontrola errazteko.

Etxearen zerbitzuen inguruan, zerbitzuak kontratatzeko, egokiena, funtzionalena eta operatiboena Tolosaldea Garatzenen bidez kontratatzea litzatekeela proposatu zen, arrazoi hauek tarteko: alde batetik, Udalak ezin duelako bere gain hartu eskualdeko zerbitzu baterako kontratazio-plegu batzuen ardura. Eta beste aldetik, kontuan hartuta Tolosaldea Garatzen-ek kontratatuko duela dinamizatzailea, bera arduratuko da zerbitzu-kontratazioetarako plegu teknikoak prestatzeaz, hori bai, berdintasun-teknikariaren laguntzarekin.

Lantalde Politiko-teknikoaren bileran zalantzan jarri zen Tolosaldea Garatzenek horrelako erantzukizuna bere gain har zezakeenik, eta erabaki zen gai hori aztertzea astero Tolosaldea Garatzenek egiten dituen bileretan.

Mantentze-lanen inguruan hainbat aukera aurreikusten ziren eta Lantalde Politiko-teknikoan erabaki zen finantzaketa partekatuaren gaiari irtenbide egokiena bilatzeko, Kontuhartzailetzako teknikaria, Ogasuneko zinegotzia eta Berdintasun

Asimismo, se mencionó la posibilidad de solicitar una pequeña formación a Intervención del Ayuntamiento, con el objetivo de justificar adecuadamente los gastos de la subvención nominal que se concede a la Asociación.

**4 de julio,** reunión con el Grupo de trabajo Político-técnico. Se trataron los siguientes temas:

Financiación compartida. En dicha reunión se dio cuenta de la reunión mantenida en junio con una técnica de Intervención y la concejala de Hacienda, y se presentaron las propuestas realizadas sobre financiación compartida: no había problema en conceder una subvención nominativa a la Asociación de la Casa de las Mujeres para poder desarrollar actividades en la Casa (cada ayuntamiento su parte). Se consideró importante gestionar bien el proceso desde el primer momento, es decir, presentar, verificar y gestionar las facturas y registrarlas mediante un excel.

Además, Intervención se mostró dispuesto a organizar un taller para facilitar a la Asociación el control de los gastos a través del excel.

En relación con los servicios de la Casa, se propuso que para la contratación de los servicios lo más adecuado, funcional y operativo sería la contratación a través de Tolosaldea Garatzen por diferentes motivos: por un lado, porque el Ayuntamiento no puede hacerse cargo de unos pliegos de contratación para un servicio comarcal. Y por otro lado, teniendo en cuenta que será Tolosaldea Garatzen quien contrate a la dinamizadora, dicha agencia sería la encargada de elaborar los pliegos técnicos para las contrataciones de los servicios, eso sí, con la colaboración de las técnicas de igualdad.

En la reunión del Grupo de trabajo Político-técnico se cuestionó que Tolosaldea Garatzen pudiera asumir este tipo de responsabilidad y se acordó que se tratara este tema en las reuniones que hace todas las semanas Tolosadea Garatzen.

En torno al mantenimiento se preveían diferentes opciones y en el Grupo de trabajo Político-técnico se acordó que, para buscar la solución más adecuada al tema de la financiación compartida, se volvieran a reunir la técnica de Intervención, la concejala de

teknikaria berriro biltzea, gaia aztertzea eta Lantalde Politiko-teknikoaren hurrengo bilerara beste proposamen bat eramatea.

Hacienda y la técnica de Igualdad, para estudiar el tema y poder llevar una nueva propuesta a la próxima reunión del Grupo Político-técnico.

Dinamizatzailearen kontratazioa. Berastegi eta Asteasuko alkateek, Lantalde Politiko-teknikoko Tolosaldeko udal ordezkariek, gaiaren aurkezpena egin zuten. Esan zuten Tolosaldea Garatzeneko Administrazio Kontseiluak Emakumeen Etxeko dinamizatzailearen kontratuaren gaia aztertu zuela joan zen ekainean egindako bileran, baina, dirudienez, ez zen aktan jaso. Horregatik, gaia konpontzeko, Kontseiluak irailean egin behar zuen bilerara eramatea proposatu zuten.

Contratación de la dinamizadora. Las alcaldesas de Berastegi y Asteasu, representantes municipales de Tolosaldea del Grupo político-técnico, informaron que en la reunión del Consejo de Administración de Tolosaldea Garatzen celebrada el pasado mes de junio, se trató el tema del contrato de la dinamizadora de la Casa de las Mujeres, que al parecer no quedó reflejado en el acta de la reunión. Por ello, para solucionar el asunto, propusieron llevarlo a la reunión que el Consejo iba a celebrar en septiembre.

Ondoren, Berastegi eta Asteasuko alkateek kontratazio-programari buruzko idazki bat aurkeztu zuten, iraileko bilera horretan gaia onartzeko. Idazki hori Tolosaldeko udal ordezkariei helaraziko zitzaien.

A continuación, las alcaldesas de Berastegi y Asteasu presentaron también un escrito sobre el Programa de contratación para aprobar el tema en esa reunión de septiembre. Este escrito se trasladaría a las y los representantes municipales de Tolosaldea.

Tolosaldeko udal ordezkariekin bilera. Tolosaldeko udal ordezkariekin bilera bat deitu beharra aipatu zen, Andragora Tolosaldeko Emakumeen Etxearen proiektua testuinguruan kokatzeko. Bileraren deialdiko mezu horretan, Gune Zabalean aurkeztutako power-pointa erantsi zen. Bertan, Etxearen partaidetza-prozesu osoaren laburpena egiten zen, eta, bestalde, Etxearen logotipoa sortzeko lehiaketaren oinarriak erantsi ziren, eta, era berean, udal horiek beren udal webguneetan oinarriak jartzera animatu zituzten.

Reunión con las y los representantes municipales de Tolosaldea. Se comentó la necesidad de convocar una reunión con las y los representantes municipales de Tolosaldea, con el objetivo de contextualizar el proyecto de Andragora Tolosaldeko Emakumeen Etxea. En ese correo de la convocatoria de la reunión, se adjuntaría el power-point presentado en Gune Zabala, donde se hacía un resumen de todo el proceso participativo de la Casa, y por otro lado, se adjuntarían las bases del concurso para la creación del logotipo de la Casa y se animaría a que estos ayuntamientos colgasen las bases en sus respectivas webs municipales.

Bilera horretan, Etxeko lantaldeak egiten ari ziren jardueren berri ere eman zen.

En esta reunión también se informó sobre las actividades que estaban realizando los diferentes grupos de trabajo de la Casa.

**Uztailaren 11n,** Kontuhartzailetzako teknikariarekin eta Ogasuneko zinegotziarekin bilera egin zen, etxearen mantentze-lanen gastuei buruz hitz egiteko (elektrizitatea, gasa, garbiketa, ura, erosketa txikiak, etab.). Zenbait aukera aurreikusi ziren: Tolosaldea Garatzenek kudeatzea, herri bakoitzak Tolosaldea Garatzen enpresari urtero egiten dion ekarpena handituta; Etxeko Elkarteak kudeatzea eta, azkenik, Tolosako Udalak ordaintzea eta, ondoren, beste udalerriei fakturatzea.

**11 de julio,** reunión mantenida con la técnica de Intervención y la concejala de Hacienda, para tratar sobre los gastos de mantenimiento de la Casa (electricidad, gas, limpieza, agua, pequeñas compras, etc.). Se veían diferentes alternativas: que lo gestionara Tolosaldea Garatzen, aumentando la aportación anual de cada municipio a Tolosaldea Garatzen; que lo gestionara la Asociación; que pagase el Ayuntamiento de Tolosa y posteriormente lo facturase a los otros municipios.

Horregatik, bilera horretan erabaki zen kalkulu bat egitea Berdintasun arloak etxean programatuko dituen jarduerak, programak eta zerbitzuak garatzeko espazioaren erabilerari buruz. Espazioaren erabilera kalkulatuta, mantentze-lanen gastua nork kudeatu behar duen aztertuko da.

Por ello, en dicha reunión se acordó realizar un cálculo sobre el uso del espacio para el desarrollo de actividades, programas y servicios que el Área de Igualdad programará en la casa. Mediante el cálculo del uso del espacio se analizará a quién debe corresponder la gestión del gasto de mantenimiento.

**Uztailaren 18an,** Tolosako Udalaren eta Andragora Tolosaldeko Emakumeen Etxearen arteko lankidetza-hitzarmenaren lehen zirriborroa helarazi zitzaion Udaleko Idazkaritzari, lokalak lagatzeari buruzkoa, elkarte horrek Etxean eskainiko lituzkeen jarduerak, programak eta zerbitzuak garatzeko.

**El 18 de julio,** se dio traslado a la Secretaría del Ayuntamiento del primer borrador del Convenio de Colaboración entre el Ayuntamiento de Tolosa y la Casa de las Mujeres de Tolosaldea Andragora, sobre la cesión de los locales para el desarrollo de las actividades, programas y servicios que esta Asociación ofrecería en la Casa.

**Irailaren 30ean** amaitu zen logotipoak aurkezteko epea. 7 lan aurkeztu dira. Azaroan epaimahaia osatzen duten emakumeei dei egingo zaie aurkeztutako lanak kalifikatzeko, eta lehiaketaren irabazlearen izena jakinaraziko zaie.

**El 30 de septiembre,** se terminó el plazo para la presentación de los logotipos. Se han presentado 7 trabajos. En noviembre se convocará a las mujeres que componen el Jurado para calificar los trabajos presentados y se comunicará el nombre de la ganadora del concurso.

**Urriaren 7an**, bilera baterako deia egiten zaio Lantalde Politiko-teknikoari dinamizatzailearen kontratuaren gaia aztertzeko. Tolosaldea Garatzenen bilera batean komentatu zen idazkari batzuen iritziz, Tolosaldea Garatzen SA bat izanik, eragozpenak izan ditzakeela programa baten bidez kontratazioak egiteko, eredu hori administrazio publikoak soilik erabil dezaketelako. Hori dela eta, bileran adostu zen txosten juridiko bat eskatzea.

**El 7 de octubre,** se convoca una reunión al Grupo Político-técnico para tratar el tema del contrato de la dinamizadora. En una reunión de Tolosaldea Garatzen se comentó que, en opinión de varios/as secretarios/as, al ser Tolosaldea Garatzen una sociedad anónima (SA), puede tener dificultades para realizar contrataciones a través de un programa, ya que este modelo sólo puede ser utilizado por la administración pública. Por este motivo, en la reunión se acordó solicitar un informe jurídico.

Amaitzeko, gogorarazi nahi dizuegu 2022rako 8.000 euroko dirulaguntza nominala aurreikusi dela Andragora Tolosaldeko Emakumeen Etxea Elkartearen jardueretarako.

Para terminar, recordaros que para el 2022 está previsto una subvención nominal de 8.000 euros para las actividades de la Asociación Casa de las Mujeres de Tolosaldea Andragora.

Tolosan, 2022ko azaroaren 3an

Andragora Tolosaldeko Emakumeen Etxearen Lantade politiko-teknikoa